



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza. Tfonoa.: 313030 IGELDO

ASPALDIKO !!

Kaixo, herrikide!

Hementxe gaituzue berriz ere, aurtengo bigarren Orri Informatiboa betetzeko prest, zuei guztioi inguruan gertatzen denaz informatzeko prest.

Atxikita doakizue Eskola Txikikoek hel arazi digutena; ekainaren 11ean izango den festa handiaren programa eta xehetasunak. Geroz eta hurbilago dago eguna!!

Era berean, atxikita doakizue gai desberdinei buruzko gaztelaniazko laburpena. Kexak medio, hemendik aurrera laburpentxo bat sartuko dugu gaztelaniaz idatzita.

Eta besterik gabe, has gaitezen Herri Kontseiluko aktan kuxkuxeatzen.



SINDIKATOA

Aurreko Orri Informatiboan aipatzen genizuen Sindikatoan zerbait egiteko asmoa dagoela, eta Jakoba Rekondorekin harremanetan daudela Herri Kontseilukoak. Jakobak eta bere lankideek proiektu bat egin dute eta orain Donostiako udaletxeari erakutsi behar zaio. Alkatearekin hitz egiteko ordua eskatu behar da, eta eskaera maiatzaren 11ean egin da. Udaletxeak obrak egiteko baimena eman behar du eta horregatik zuzendu dira alkatearengana.

Beno, horregatik, eta dirua daukalako. Bai Donostiako udaletxetik eta baita Eusko Jaurlaritzatik ere diru-laguntzak jasotzea espero dute Herri Kontseilukoek.

HERRI-BIDEAK

Herri bideen erregistroa

Orain dela 4 urte herri bideen azterketa egin zen. Ondoren Donostiako Plenoak publiko gisa ontzat eman zituen eta udaletxeko ondarean sartu zituen.

Orain jakin nahi da, jabetza erregistroan ere sartuta dauden ala ez, eta hortaz Herri Kontseiluko Iñaki Ostolaza arduratuko da. Ondarean ezezik jabetzan sartuta egotea garrantzitsua da, dirudienez, etorkizunean zer norena den eta antzeko arazorik egon ez dadin.

HIRIGINTZA

Herri Kontseilukoek gai honi dagokionez, zera esan digute:

Zerrenda bat egin da Igeldon dauden itxitura, etxe berriak, txabolak,... eta antzekoena. Donostian aurkeztea onartzen da, baimena duten ala ez galdetuko da; baimena baldin badute zein baldintzekin eman ziren eta egun baldintza hauek errespetatzen diren edo ez, jarraipena egiten den galdetuko da, itxiturak legalak diren edo ez jakin nahi da; itxi diren herri bideekin zer egiteko asmoa duten jakin nahi da,...

Bestalde, hainbat kasu epaitegian daude, emandako lizentziak irregularrak diren ala ez argitzeko, eta, dirudienez, sententziak laster ateratzekoak dira (bat aterata dagoela dirudi, kaltetuak jaso baitu). Herri Kontseiluak abokatuarekin batera sententziak aztertuko ditu, banan-bana. Baina erabaki sendoa dute udaletxearen legez kanpoko ekintzen aurka joatekoa, baita epaitegietara jo behar badute ere; lurraren erabilpen "fraudulentoa" ekidin nahi dute.

ESKOLA ZAHARRA ETA KULTUR ETXEA

Dakizuen bezala, datorren urterako ikastetxe berria izango dugu Igeldon. Horrek eraikuntza zaharra –udaletxea izan zena- hutsik geratzea ekarriko du. Zer egingo da bertan? Zein erabilera emango zaio? Zer gertatuko da eraikuntzarekin berarekin? Etxe horren etorkizunaz hitz egiteko egun Kultur Etxea erabiltzen duten elkarteek bilera egin dute maiatzaren 29an. Bilera horretan

adostu dute...sentitzen dugu, zer hitz egin den bilera horretan oraindik ez dakigu. Suspentseak jarraitu beharko du hurrengo Orri Informatibora arte!!

Bestalde, aipatu bileran kultur etxearen antolamenduari buruz hitz egin da. Talde asko gara Igeldon, ekintza desberdinak egiten ditugunak eta kultur etxea erabiltzen dugunak. Antolakuntza egoki baten beharra ikusten da eta horri buruz eztabaidatu dute 29ko bileran. Gaiak aurrera egin ahala kontatuko dizuegu.

DIRU KONTUAK

Kultura patronatuak egin du ingresoa. Zenbateko zehatza oraindik ez dakigu, baina 5900 euro ingurukoa omen da. Diru horren banaketa aurreko urteko irizpidearen arabera egingo da, nahiz eta gai honi buruz ere, maiatzaren 29ko bilera *famosuan* hitz egitekoak ziren.

Lizardi pilota eskola	365 euro
Soka tira	365 euro
Musikarte	2495 euro
San Isidro	180 euro

MUS TXAPELKETA

Aurreko urteetako beherakada gaindituta, partaidetza handia izan da aurten. Egun batzutan garbiketa arazoak egon ziren (hurrengo egunetan usainak,...).

Urrezko lapan jende gutxiago ibili omen da. Lehengo urteko eztabaida bera etorri zaie antolatzaileei aurten ere: mus txapelketa ostiraletan jarri beharko litzateke? Hurrengo urtean eztabaidatuko dute hori.

Bestalde, kexu dira txandak azken momentuan abisatzen direlako, eta denboraz hartzea komeni dela diote.

KULTURA

Ligelaturra

Aurten lehen literatur lehiaketa izan da Igeldon. Musikartek antolatuta, haiek uste baino jende gehiagok hartu du parte.

Hala ere, helduen olerkien atala saririk gabe geratu zen inor aurkeztu ez zelako. Badakizu, hortaz, zer egin: 16 urtetik gorakoa bazara joan bertso batzuk ala olerkiren bat pentsatzen, eta hartu parte hurrengo urteko Ligelaturrean!!

Sarituak honakoak izan dira:

- 12-16 urte bitarteko kategorian, “bertsoa” modalitatean: JASONE URRUZOLA, “Zelai urdina” lanarekin
- 12-16 urte bitarteko kategorian, “ipuina” modalitatean: AITOR ETXEBERRIA, “Ikerren abentura” lanarekin
- 16 urtetik gorakoen kategorian, ipuinetan: MINTZA-LAGUN EUSKARA TALDEA, “Aldapan gora” lanari esker

Zorionak guztioi, eta disfrutatu irabazitako liburuetaz!

Hitzaldiak

Maiatzeko azken aurreko astean gazteek antolatutako hainbat hitzaldi interesgarri egin dira Igeldon. Horri buruz informazio gutxi dugu ordea. Ia norbait animatzen den guri zerbait kontatzera (Kultur etxeko postontzian).

Antzerkia

Pasa den maiatzaren 27an Oihulari Clown taldea izan genuen Igeldon, “zai, beti zai” lana aurkeztuz. Ligelatur Literatur

Lehiaketaren irabazleei sariak banatu eta gero, gogotik barre egiteko aukera izan zuten Itsas Aurren bildutakoek. Modaz ikuspegi berezia duten bi gazte azaldu ziren oholtzara, eta maitasunaren alde guztiak erakutsi zituzten, humorez betetako antzezlan didaktikoan. Maitasunari buruz jakin beharreko guztia badakigu dagoeneko; bai teoria, eta baita praktika ere!

Antzerki gehiago... Gogoratu, antzerkia ikusteko hurrengo aukera ekainaren 9an izango duzu, Teresa Lopez de Munainek “Ugaztun baten antsiak” antzeztuko baitu Itsas Aurren. Eta hurrengo eguneko ilunabarrean helduentzako ipuinak izango dira, musikaz lagunduta; ondoren musika gehiago, Etxart senideen eskutik.

San Isidro

Pasa da, bai, San Isidro. Eta beste urte batez jaia egin zen Igeldon. Balorazio ofizialik jaso ez badugu ere, giro polita egon zela esan digute, eta jende asko bildu zela. Hemendik animatu nahiko genuke norbait, egun horri buruz zertxobait idaztera; bertan izan ez ginenoi han ikusitakoa eta bizitakoa kontatzera.



Mendi irteerak

Ibilaldi bikaina egin genuen maiatzean Adarrari itzulia eginez. Tontorrari eskuineko aldetik bira eman eta Etenetako zelaira iritsi ginen, bertan, garai bateko zutarria eta mairubaratzak ikusi eta hamaiketako egin ostean, mendiaren tontorreraino iritsi ginen. Ibilaldian zehar biologia ikastaro praktikoa ere izan genuen: kilkerrak bere zulotik nola atera arazi eta kilkerra arra ala emea ote den nola bereizi ikasteko aukera izan baikenuen.



Hurrengo ibilaldia ekainaren 4an, Artikutzari itzulia.

Eta zuk, bereizten al dituzu kilkerra arra eta emea? Ondoko argazkian agertzen dena zer da? Arra ala emea?



Horra bada, mendi irteerara joan zirenek botatako galdera. Erantzunik ba al dakizu? Orduan, betikoa, papertxo batean idatzi eta kultur etxeko buzoian utzi Orri Informatiboarentzako dela zehaztuta.

Eta horixe da, hain zuzen ere, aurrekoan Mintza-Lagun taldekoek egin zutena. Orduan egiten genuen galdera zera zen: zein urtetan azaltzen da idatzita lehenengo aldiz Igeldori buruzko zerbait? Mintza-lagunekoek erantzun zutena eman dute: 1141. urtean Iheldo Bizkatxari buruzko hainbat gauza azaltzen baita. Opari gisa Igeldon sortutako zerbait emango genuela esan genuen, oso polita izango zela, mantxo-mantxo egindako zerbait, ia perfektua zen zerbait. Ba horixe, Igeldoko zelai zerbitzari batetik hartutako loretxo bat irabazi dute Mintza-Lagun taldekoek! Eta poztu gaitu, bai, kontzientzia ekologiko pixka bat badugula egiaztatzeak: norbaitek esan digu ez dela oso etikoa apaingarri gisa lore batekin akabatzea. Jakin dezazuela, oso ugaria den lore bat aukeratu dugu opari gisa, alegia, ez dagoena mehatxu pean ezta antzekorik ere ez; eta ez dugu opariak egiteko ohitura handirik, alegia, ez ditugula maiz hartzen. Eta lorea kentzeak ez dio landareari kalterik egingo, lore ugariko landaretik hartuko baitugu, eta ugalketan egingo dion kaltea arbuigarria izango da. Hori azalduta, zorionak, Mintza-Lagun kideak! Kilkerraren erantzuna asmatzen duenarentzat oparia: zur eta lur utziko zaituen lore-sorta (bai, lore gehiago, ehunka lore, gainera).



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

